

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPEN-EGOERAREN FISKALIZAZIOA 10.000 ETA 20.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO UDALETAN” FISKALIZAZIO-TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den urriaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen “Administrazio elektronikoen ezarpen-egoeraren fiskalizazioa 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietako udaletan” fiskalizazio-txostena. Lan hori Estatuko gainerako kanpo-kontrolako organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin koordinatuta egin da, eta horretarako, analisiaren mailaren barruan, biztanle gehien dituen lurralde historiko bakoitzeko udalerria hautatu da lagin gisa.

Txostenak honako alderdi hauek besarkatzen ditu, besteak beste: hautatutako udaletan administrazio elektronikoa benetan ezarri izanaren azterketa, administrazio elektronikoa ezartzeko jasotako diru-sarrerak eta horretarako berariaz egindako gastuak, datuak babesteko araudia eta segurtasun- eta elkarreragingarritasun-eskema nazionalak betetzearekin lotutako gaiak, eta udalek eraldaketa digitalerako bidean garatutako plangintzaren eta hartutako neurri garrantzitsuenen azterketa.

Halaber, administrazio elektronikoa ingurumenean izan duen inpaktua ere aztertu da; baita COVID 19ak izan duen eragina ere.